

Erzti tär Josefa Mirena

Albano's

Bilbao'tik, 1935'kko. gariġa-9'gn.

Lafitte'tar K. jaupari jaunari

USTARITZ'en

Agur:

Ez takit nigaz gomuta edo oroitzen zaran. Orain urte bi, Euzkadi-ostereagertatzeko emengo Goikoetxea'rekin eta beste lagun batekin ixan nintzan or, zu ikusten. Gurekin batera nire semia eguan.

Gure seme onek amalau urte daukaz orain. Emengo josulaun edo jesuitaen ikastetxian diñardu ikasten. "Bachillerato" deretzko naren laugarren urtia amaitu dau orain, eta ondo amaitu be. Pantzerazko urte bi be egin dauz, baña ez taki pantzeraz itz-egiten, ez ta entzunez adi tuten be. Eta auzegatik gura-dogu udako ila onetan, gariġan, dagoniġan eta irala-azkenerafte, Ustaritz-aldian edo Bayona-aldian, jaupariaren baten etxian eta ardura edo zain-bian, edo olako etxe on-on baten euki, pantzeraz entzuten eta itz-egiten oituteko.

Gure semia euzkelduna da, geurian beti euzkeraz itz-egiten dogu-ta. Augatik, orko euzkeraz be oituteko ta Franceġaz ezetariko zaletasunik ez aitzeko, eneuke mutila Euzkadi'tik atera gura.

?Ezautzen dozu, ba, zuk jaupari edo apezan bat, edo olako oitura on-oneko etxeren bat, nire semia aituko leukena? Blazy jaunak aituko ete-leukenaz gomuta ixan naz, baña ez takit al-ixango daun. Jauparija ezpa'litz, apezgai batekin be baidi ixango litzake.

Pantzeraz idazten, irakurten eta batez-be itz-egiten irakatsiko leuskio mutilari. ~~Orain~~ Beraz ainteko gauzak jaten dago oituta: aragiġa, araña, arautzak, lusagarak, indaba edo babarunak, esnia ta abar. Ardaorik eztau edaten. Beraz, janarijak aruntekuak ixango litzakez, gure etxietan eta orkuetan oituten dana.

Auxe da, ba, jakin gura-dodana: gure semia aituko leuken jaupari edo apeza ezautzen dozun, Ustaritz-aldian edo Bayona-aldian (Bayona'n bertan ez, baña) ba-da, obeto. Eta egunian zeinbat libera edo franko ordaindu biarke neuken orogatik.

Jauparija elitzake egun osuan nire mutilarekin egon biar, ez. Guria eriko mutilarekin, onak ba-dira, ibiliko litzake jolasian.

?Idatziko daustazu, ba, len-bai-len onetzaz? Eskafik asko.

Agur ta agindu Jel-aldez,

Sicard Tarjocha M^a vi

José María de Erazti
Colón de Larreategi, 12, 5^a
B I L B A O